HANKA PUNTTETAN



Rosi Lazkano
(1958 Aia, Gipuzkoa)

Doinua: Gogoratuko zara
Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)

2016ko Bertso Egunean Donostian abestutako sorta.

Haurtzarotik gaur arteraino, bizitzako pauso txiki-handiei.

1 Zaharrak berri dion
haritik **tiraka**
gogoa bereala
doa **pirrilaka***
nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak **tapa**
irripar bat sortzeko
ahalmena **dauka**
nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak tapa
bizi-bizirik dago
aitzen det **tik-taka**.

2 Nere lehen ipuina
zan kristau **dotrina**
ixilik egon behar
hizkuntz asko **baina**
etxekoak euskeraz
mezetan **latina**
Santa Anako monjak
gaztelera **fina**
etxekoak euskeraz
mezetan latina
eta nexkak eraman
behar **mantelina***.

3 Txarolezko zapatak
galtzetin* **txuriak**
neska txiki harentzat
momentu **haundiak**
egun berezietan
janzteko **jantziak**
ahizpa zaharrago batzuk
aurrez **erantziak**
egun berezietan
janzteko jantziak
begiratuta garbi
neuzkan **belarriak**.

* ***pirrilaka*** = *pirripitaka, bueltaka amiltzen*
mantelina = *mezetarako buruko oihala, beloa*
galtzetin = *galtzerdi*

4 Astelehen goiza beste
denen **desberdina**
sukaldia betian
erropa **zikina**
goiz osoan burrundan
jaboi ur **makina**
lehenengo maindirea*
gero galtza **urdina**
goiz osoan burrundan
jaboi ur makina
automatikua zan
amaren **ezina**.

5 Nerabetzan ez katxi
eta ez **zurito**
nere beldur guztiak
izerditan **ito**
hanka-punttetan dantzan
bi ordu ta **piko**
abiapuntu txarra
ez zan **nerekiko**
hanka-punttetan dantzan
bi ordu ta piko
“faborez?” baten hasi
ta lotu **betiko**.

6 Etxerako bidean
argitik **ezkutu**
lehen muxua… bueno
ezpainak **ikutu**
barrun dena algaraz
kanpon dena **mutu**
segundoa bihurtu
zitzaidan **minutu**
barrun dena algaraz
kanpon dena mutu
pekatua zan baino
ez nintzan **damutu**.

7 Orain dirudigula
katu eta **xagu**
zulotxoan sartzeko
ez nabil hain **malgu**
oilo-ipurdin jartzia
hori ez det **galdu**
desio berriren bat
beti zait **azaldu**
oilo-ipurdin jartzia
hori ez det galdu
eta grano zein agne
itxusitik **salbu**.

8 Hazitarako inor
izango ez **geranez**
holako aukerei
ez diet “**orain ez**”
seguru segiko det
tabarra **emanez**
gustatzen zaidan hura
gustora **eginez**
seguru segiko det
tabarra emanez
lehen hanka punttetan
eta orain **oinez**.

* ***maindirea*** = *izara*